

Pilota-jokoaren ezarpena alde zaharretan



Daniel Carballo * Aldiri, 2012, III, 11, 10-12, ISSN 1889-7185
Jasotze-data: 2012-06-30 / Onarpen-data: 2012-07-13

LABURPENA: Artikuluak hurrengo helburuak ditu: alde zaharretan pilota-joko aitzindariak ezarri zituen aztarnak bereiztea, eta azaltzea nola pilota-jokoak bereganatu egin zuen, azkenik, behin eta berriz hartutako espazio publikoa, bertan ezarri, hirigintza bera eraldatu arte.

ABSTRACT: : The aims of the article are to identify the traces that frontons (courts for playing Basque pelota) have left in town centres and to explain how the game of pelota made these spaces its own, even though such spaces had been repeatedly claimed by other sports and activities.

GAKO-HITZAK: Harresia, Pilota, jokoak, ezarpena, hirigintza

KEY WORDS: town planning, game, ball, implantation, wall

Jokoaren arkitektura – jokoak arkitekturan

“Valentziako pilotak, kultura dakarren kirola izaki, euskal pilotaren antza badu ere, sustrai desberdinak ditu”.

G. Vico, Igor. *Deia*, 2012-04-02. Bilbo.

Harritzekoa, batzuen aldetik, antzekotasunen ordez, desberdintasunak besterik ez aurkitzea.

Pilota-jokoak bi mende baino gehiagoko historia duela diogunean, zer jokotaz hitz egiten ari garen ba al dakigu? Joko zuzenak ez al dira, bada, euskal pilotaren aitzindariak?

1555. urtean Antoni Scaino abadeak, Venezian, *Trattato del Giuoco Della Palla* (pilota-jokoaren tratatua) izenburuko lanean —pilota-jokoaren lehen idatzi garrantzitsua—, joko zuzenaren gorabeherak jorratu zituen, lehen aldiz, ikertzaile batzuen ustez. Joko zuzenak XII. mendean ere eduki dezake jatorria, Frantziako komentuetan garai hartan jokatzeko omen zen eta.

Onartu liteke, balio desberdinetako agiriak aztertuz, pilota-jokoak, joko zuzenak alegia, bederatzi mendeko adina baduela.

Gaur egun ere, Euskal Herriko Zuberoan, Lapurdin, Nafarroa Beherean, Baztan bailaran, Oiartzualdean eta Oria bailaran; Valentzian; Italiako Toskana, Brescia eta Markak eskualdean; Belgikako Charleroi, Kersken edo Herbehereetako Franekerren, oraindik joko zuzena jokatzeko modalitate desberdinetan: eskuz, eskumuturrez, xisteraz, eskularruz, etab.

Pilota berria

1892. urtean Antonio Peña y Goñik *La pelota y los pelotaris* liburuan aipatzen zuen, Madrilgo Ateneon Alejandro San Martin mediku nafarrak kirolen onurei buruzko hitzaldia eman zuela pilota-joko zuzenaren onurei buruz, eta nola Joko ez-zuzenaren gorakadak zuen kalteari buruz, esanez “zeharkako jokoak (*blé* deituraz ezaguna), narrasa, ankerra eta kaltegarria” zela.

Hondarribiko harresiak

1863. urtean, Gustave Colin marrazkilaria, Hondarribiko harresian, joko zuzeneko eskularruz jokaturiko partida baten eszena islatzen du. Gaur egun, laxo izenez ezagutzen dugunaren irudiak dira, airez jokatzeko den jokoaren alegia. Geroago, erreboteko-jokora moldatuko zen, erreboteko-pareten moldaerarekin. Guztiak bote luzearen edo, esku-joko edo “jeu de paume” delakoaren ondorengoak.


Margoa egin baino ia mende bat lehenago, Hondarribiko planoetan, “pilota-jokoak” kokatuta azaltzen da, margoan jokatzeko den leku berberetan.

Madrilgo Ateneoko San Martin medikuaren hitzaldiaren eta Gustave Colinen margoaren artean 20 urte besterik ez dago, eta ordurako ezagunak ziren joko zuzenaren eta zeharkako jokoaren (*blé*-jokoak) arteko konparaketak kritikak. Joko zuzenaren gainbehera zetorren, eta zeharkako jokoaren (ezker paretakoa) gorakada.

XIX. mendean, gaur egun ezagunak diren eta kirol eta kulturaren ondare diren ezker paretako pilotaleku gehienak eraiki ziren. Pilotaleku horiekin haien aitzindaria zen joko zuzena ia desagerrarazi zuten.

Bilakaera


Ezker paretako pilotalekuak eraiki baino lehenago, pilota-jokoak zelaietan, kaleetan eta gure plazetan jokatzeko zen, jokoak inguruan zuen arkitekturara moldatzen zelarik. Ezker paretako pilotalekuekin, jokoaren eta plazaren iraultza piztu zen, eta ordura arteko jokoarekin ez bezala, horretarako beharrezkoak ziren bi paretak eta lur egokia moldatu behar izan ziren. Herri batzuetan, joko zaharra errespetatuz eraiki ziren, baina gehienek pilotaleku berria eraiki zuten, antzinako pilota-jokoak ahaztuz, desagerraraziz.




1. maila: arkitekturek (harresiak, kaleak, plazak) jokoaren espazioa mugatzen eta baldintzatzen du

El pretil, define el recinto y el origen o una "poda" inicial


0. maila: arkitekturekin erlaziorik ez



2. maila: arkitekturek elementu bat eskaintzen dio jokoari: paret




3. maila: jokorako espresuki eraikitako lehen elementua: frontisa



4. maila: jokoaren bilakaerak bi elementu berri eransten dizkie aurretik zeudenei frontoia eratzeko

5. maila: frontoia plazan, elementu autonomo gisa



Daniel Carballoren marrazkiak.



Colin, Gustave (margoa, Baionako Historiako Euskal Museoa), 1864, Hondarribia

Pilota negozio bihurtzen hasi zenean, pilotalekuak estalkiekin eta itxiturekin osatuz joan ziren eta jokoa gure herrietako kaletatik desagertzen hasi zen.

XIX. mendea

XIX. mendea, ekonomia-, kultura- eta zientzia-garapen handiko mendea izanda, zabalkundeen grinarekin, badirudi gizarteak ez zuela eragozpenik izan antzinako aztarnekin bukatzeko. Harresiak desegin ziren zabalkundeak eraikitzeko, eta, bide batez, pilota-joko aitzindariak mendetan lortutako oinarritzko kokapenak galdu ziren. Hala ere, XVIII. eta XIX. mendeetako hirigintza eta arkitektura gorde dituzten herri batzuetan, pilota-jokoaren aztarnak aurki daitezke, besteak beste Hondarribian, Guardián, eta Getariako harresiaren zati batean, besteak beste. Urduñakoan, Bilbokoan (Pilota kalea), Zumaian edo beste batzuetan, aldiz, pilota-jokoa harresian kokatu zeneko aztarnak izan arren (toponimia, artxibategietan, planoetan...), jokoa kaletik desagertu da.

Guardiako artxibategian badaude XVI. mendeko aipamenak, pilota-jokoa debekatzen dutenak. XIX. mendeko F. Coello-ren planoan (1840) ere gaur egungo kokapenean azaltzen zaigu, pilota-jokoa.

Hainbat liburutan aipatzen da Enrike II.ak (XVI. mendea) Louvren zuen "jeu de paume" (esku-pilota lekua) edo Enrike III.a Nafarroakoa eta IV.a Frantziakoa (XVI.-XVII. mendeak) pilota-jokalari trebea zela eta Paueko gazteluko harresiaren azpian pilota-jokoa zuela.

Italiako Markak eskualdeko Treia herrian, harresi azpian pilota-joko zaharra omentzeko "Bisfida col bracciale" festa ospatzen da. Lekua "Strada di gioco di pallone" izena duen kalea da. Markak eskualdeko hiriburuan, Materazan, Italiako pilotalekurik (sferisterio) galantena dago, herriko harresia izan litekeen kokapenean.

Hauek eta beste hainbat adibidek, eta pilota-joko zahararen jarraitzaileen lanari esker, antzina Europa osoan ezaguna zen pilota-joko zuzena berreskuratu nahi dute, zeina kaletan, harresi azpian, plazetan eta futbol-zelaietan jokatzen den.

Bitartean, gure ezker paretan jokaturiko zeharkako pilota-jokoa, bi mendetan, mundu guztira zabaldua izan da, besteak beste



Pallone col bracciale festa (www.disfidadelbracciale.it). Hau ote XVI. mendeko pilota-jokoa?

diru-iturri interesgarria delako, Espainia, Frantzia, Italia, Argentina, Mexiko, Uruguai, Txile, Estatu Batuak, Filipinak... Jokozuzena, berriz, iragan mendetik mesoamerikar pilota-jokotzat ezagutzen dena, Europan XVI. eta XVIII. mendeen bitartean erregeen joko ezaguna izatetik aztarna batzuk besterik ez izatera pasatu da.

Erreflexioa

Gaur egun, ezker paretako pilotalekuak hutsik daude. Udalerri batzuetako pilotalekuak, gizartearen eskariei kasu eginez, padela jokatzeke pista anitzeko instalazioak bihurtzen hasi dira, kirol-eskaintza zabalagoa delakoan. Gizartea kirol erosoago eta errazago moldatzen dela ikusita, pilota-elkarteetan pilota-jokalari gutxiagorekin dabilzala ezaguna da. Modalitate batzuk desagertzera doaz.

Ez ote litzateke tamalgarria izango bi mende barru, XXIII. mendean, ezker paretako jokoa desagertuta eta historia-ikertzaile batzuen lan-esparru bihurtuta, etorkizuneko pilota-jokoa, padela edo antzeko bat izatea?

XVI. eta XVIII. mendeetan gertatu zen Euskal Herrian eta Europa osoan, jendetza biltzen zuen kirola izatetik, historia eta kirola maite duten gutxi batzuentzako esparrua izatera pasatzea.

Ez da harritzekoa, beraz, gehienek antzekotasunik ez aurkitzea, zeharkako euskal pilotaren eta joko zuzenaren artean.

Barregarria izango litzateke, joko zuzenaren ondorengoa den padelak zeharkako jokoa kanporatuko balu, bere arbasoen aldarrikapenerako.

Bibliografia

- Arraztoa, T. (2010): *Laxoa. La pelota en la plaza*, Cenlit, Lizarra.
- Arraztoa, T. (2004): *Guante-Laxoa. La modalidad mas antigua de la pelota vasca*, Autoedizioa, Iruñea.
- Bombin, L. (1976): *El gran Libro de la pelota. Deporte Universal*, Creset, Madril.
- Deane, P. (1965): *The First Industrial Revolution*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Gómez, J. (1994): *Documentos Cartográficos Históricos de Gipuzkoa*, GFA, Donostia.
- Peña y Goñi, A. (1892): *La pelota y los pelotaris*, Maxtor, Madril.
- Scaino, A. (1555): *Trattato del Giuoco Della Palla*, Venezia.

* Daniel Carballo arkitektoa, marrazkilaria, argazkilaria, pilota-jokalaria eta ikerlaria da.

